

Donostia, 2020ko azaroaren 6a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

ETXEGABETZEEN AURKAKO PROTOKOLOARI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Haizea Garay Gallastegu Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, 2019ko apirileko ohiko udalbatzan Eusko Jaurlaritzari eskatu zitzaion etxegabetzeen aurkako protokoloari buruz, UDALBATZAN AZER DADIN.

JUSTIFIKAZIOA

Hiriko etxebizitzaren alokairu eta erosketa prezioei dagokienez, Donostia Estatu osoko sailkapenaren goi-goian dago. Neurrigabeko prezioen ondorioz, eta egungo krisi-egoera dela eta, gazteek zailtasun handiak dituzte hirian bizitza-proiektu bati ekiteko eta familia askok benetako arazoak dituzte alokairua edo hipoteka ordaintzeko.

2015eko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak, Etxebizitzari buruzkoak, haren helburu soziala ezartzen du, eta beraz, eskumenak dauzkaten administrazio guztiek abian jarri behar dituzte helburu hori betetzeko beharrezkoak diren ekimen guztiak, izan ere, etxebizitza bat izatea ezinbestekoa da bizimodu duina izateko.

Donostiak etxegabetzeetatik libre dagoen hiri izendapena eman zion bere buruari 2015eko irailean, baina etxegabetzeak ez dira desagertu. Ildo horretatik, 2019ko martxoan, Eusko Jaurlaritzaren alokairuko etxebizitza tasatu batean bizi zirenen etxegabetzea in extremis bertan behera utzi zela eta, jakin genuen zein ziren jatorrian sustapen publikokoa izandako etxebizitza baten benetako kudeatzaileak. 1998an, Eusko Jaurlaritzak azalera-eskubidea laga zion, 75 urterako, Metrovacesa y

Vallehermoso enpresek osatutako ABEEri, babes ofizialeko sustapenaren barruko etxebizitza batzuk eraikitzeko. Eusko Jaurlaritzak zozketatu zituen etxebizitzak eta alokairuko kontratuen baldintza tasatuak ezarri zituen: kuota eta kuotaren berrikuspenak, iraupena eta luzapenak –bide batez, gogoratu behar dugu, 2028. urtea dutela muga-eguna-. Data horretatik aurrera, jabeak kuotak merkatuko prezioen arabera finkatu ahal izango ditu.

Jabeari dagokionez, 2016an, Metrovacesak Testa Residencial SOCIMIarekin bat egin zuen, eta, gero, 2018ko abenduan, SOCIMI horren inbertsore nagusia Blackstone izatera pasa zen. Blackstone munduko putre-funtsik handiena bihurtu da, eta adreiluaren krisia aprobetxatu zuen bankuetatik, baina, baita ere, etxebizitza publikotik, etorritako aktibo toxikoak eskuratuz 22.000 etxebizitza eskuratzeko. Bentaberri da adibide horietako bat.

Duela urte eta erdi bizi izan genuen egoera ikusita, Udalbatzak ekimen bat onartu zuen Eusko Jaurlaritzari eskatzeko, besteak beste, Benta Berriko alokairuko babes ofizialeko etxebizitzetarako etxegabetzeen aurkako protokolo bat egiteko.

Aurten, sustapen beraren barruan, bizilagun batek etxea uzteko demanda bat jaso zuen, alokairua lau hilabetez ez ordaintzeagatik. Herri-presioari esker, Benta Berriko auzokide honi etxea uzteko demanda kendu zaio, berriro ere in extremis, etxegabetzerako ezarritako eguna baino bi egun lehenago. Egoera horren aurrean, joan den hileko batzordean galdetu genion Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariari 2019ko apirilean onartutako etxegabetzeen aurkako protokoloari buruz.

Joan den hilean bizi izandako egoera gogoan, eta ABEE horrekiko izan daitezkeen arazoak kudeatzeko protokolo bat izateko premia larria dagoela iritzita, honako mozio hau aurkezten dugu:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak berresten du 2019ko apirileko osoko bilkuran aho batez hartutako erabakia:
 1. Donostiako Udalbatzak adierazi du kezkatuta dagoela Benta Berriko alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren egoerarengatik eta azaldu du horrelako sustapen batean (ezaugarri bereziak ditu) gerta daitezkeen etxegabetze kasuetarako prebentziosko jardunbide protokolo espezifiko bat garatzeko interesa duela.
 2. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio, ahalik eta lasterren, enpresa emakidadunarekin jardunbide protokolo bat egiteko, adosteko eta abian jartzeko Benta Berriko alokairuko babes ofizialeko etxebizitzetako etxegabetzeen kasurako.
 3. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio daukan informazioa jakinarazteko Udalari, bai jardunbide protokolo horren garapenari dagokionez, bai Benta Berriko alokairuko babes ofizialeko etxebizitzetako etxegabetzeen kasuei dagokienez.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari berma dezala ez dela berriro egingo etxebizitza publikoaren inongo sustapenik Bentaberriko ABEEren kasuan erabilitako formula erabilia, etxebizitza publikoaren nahiz lurzoru publikoaren pribatizazioa saihesteko.

- 3 Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Bentaberri ABEEren etxebizitza tasatuen gaineko kudeaketa zuzena berreskura dezala, bai eta antzeko egoeran dauden gainerakoena ere, halakorik bada, etxebizitzaren helburu soziala bermatze aldera.

Izpta.: Haizea Garay Gallastegui,

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia